

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako hamar ikastetxek hartu dute parte europako Euroscola lehiaketan

Maiatzaren 9an, Europaren egunaren baitan, emango dira ezagutzera Nafarroako Foru Erkidegoko talde irabazleak

Osteguna, 2018.eko maiatzak 3

Euroscolaren XXIV lehiaketan parte hartu dute Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetako 12 taldek. Antolatzaileek datorren maiatzaren 9an emango dituzte ezagutzera Nafarroako irabazleak. Aurten ikasleek Ondare Kulturalarekin lotutako ikusentzunezko lanak aurkeztu behar izan dituzte.

2018an ospatzen den Nazioarteko Kultur-ondarearen urtearekin bat eginez antolatzaileek "Gure ondarea: iragana eta etorkizunarekin bat egiten duen lekua" gaia aukeratu dute aurtengo lehiaketarako. Hala 15 eta 19 urte bitarteko ikasleek goiburu horri jarraituz bi ikusentzunezko osatu behar izan dituzte (90 segundukoa bata eta lan hori azalduz 5 minutukoa bestea). Lehiaketan parte hartu duten ikastetxeak honakoak izan dira: Lumbier IIP ("[King-Ball](#)" taldea eta "[Strongpower](#)". Elizondoko Lanbide Eskola, [Azagrako Reyno de Navarra DBHI](#), Noaingo Elortzibar DBHI, Garesko Colegio Seminario Padres Reparadores Dehonianos ([1. taldea](#) eta [2. taldea](#)) eta Lizarrako Instituto Politeknikoko ([Gad 1 taldea](#) eta [Gad 2 taldea](#)) eta Iruñeako Colegio Hijas de Jesús ([Europatrimonio](#) taldea), Donapea LHI, [Plaza de la Cruz BHI](#) eta [Colegio Sagrado Corazón](#).

Lehiaketa Espainiako Europar Parlamentuko Informazio Bulegoak antolatu du, Espainian aurkitzen den Europako Komisioko Ordezkaritzaren laguntzarekin eta Kanpo Gaien Estatuko Idazkaritzarekin eta Kulturako Estatuko Idazkaritzarekin batera. Maiatzaren 9an, Europaren egunarekin bat egiñez, erkidego bakoitzeko irabazleen berri emango dute antolatzaileek.

Lehiaketako irabazleek Europako Parlamentuak Strasburgon duen egoitzan egingo den Euroscola programan parte hartzeko aukera izango dute eta bidaia horretako gastuak ordaindu ahal izateko diru-laguntza izango dute.